

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 180/2020 Erabakia, apirilaren 7koa. Onestea Arabako Foru Aldundiari COVID-19 dela-eta emandako zenbatekoen 2020rako lehentasunezko jardueraren adierazpena, hark izaera publikoko zerbitzu sozio-sanitarioetarako erabil ditzan**

Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak arautzen du nola parte hartu behar duen sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduerak eta programak finantzatzen.

Hain zuzen ere, foru arau horren 29. artikulua 1. apartatuak dio Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zereenda, foru arau horretan bertan aipatzen diren interes orokorreko helburuen eremuan.

29.1 artikulua arabera, lehentasunezko mezenasgo jardueretarako eta programetarako izendatzen diren diru zenbatekoek araubide berezi bat dute. Diru zenbateko horiek garbiak eta soilak izan behar dira; ezin dute eduki inolako kontraprestaziorik. Araubide berezi hori honetan datza, laburbilduta:

a) Lehentasunezko zatitza jo diren jarduera edo programetarako diru zenbatekoak gastu kengarri izango dira sozietateen gaineko zergaren oinarria eta establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren oinarria zehazterakoan; enpresarientzat eta profesionalentzat, berriz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren araubidean.

b) Sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek kendu egin dezakete zehaztutako kuota likidotik lehentasunezko zatitza jotako jarduera edo programetarako diru zenbatekoaren ehuneko 18 (kuota likidoa lortzen da, hain zuzen, kuota osoari zergapetze bikoitzari dagozkion zenbatekoak eta, hala balegokio, hobariak kenduta), publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako diru zenbatekoak ere barne direla.

c) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, zuzeneko zenbatespenaren pean gauzatzen badituzte ekonomia jarduerak, kendu egin dezakete kuota osotik lehentasunezko zatitza jotako jarduera edo programetarako diru zenbatekoaren ehuneko 18, publizitate babeserako kontratuak direla-eta emandako diruak ere barne direla.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren gainerako subjektu pasibo lehen aipatutakoez bestekoek kendu egin ditzakete kuota osotik lehentasunezko zatitza jotako jarduera edo programetarako diru zenbatekoaren ehuneko 30.

Beste alde batetik, duela gutxi Arabako Foru Aldundiak martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua onetsi du, zeinaren bidez presako zerga neurriak hartzen baitira COVID-19ren eraginari aurre egiteko.

Neurri horiek, zalantzarik gabe, osatu egin behar dira zerga pizgarriak emanez sektore pribatuak gizarte eta osasun zerbitzu publikoetara bideratu daitezzen egiten dituen ekarpenetarako, Arabako Lurralde Historikoan COVID-19k sortu duen osasun krisiari aurre egiteko asmoz. Ekintza hori, zalantzarik gabe, lehentasunezko zatitza eta guztien intereseko zatitza eman daiteke.

Esandako ekarpenak bideratu eta zentralizatzeko, uste izan da egokiena dela haiek Arabako Foru Aldundiaren beraren bitartez egitea, hark adierazi den helburuaz jasotako ekarpen guztiak entrega ditzan.

Esandako guztiarengatik, erabaki honen bidez lehentasunezko jardueratzat jotzen dira gizarte eta osasun zerbitzu publikoetara bideratzeko Arabako Foru Aldundiari emandako zenbatekoak, Arabako Lurralde Historikoan COVID-19k sortu duen osasun krisiari aurre egiteko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

##### **Lehenengoa. Lehentasunezko jardueratzat jotzea**

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak (Irabazteko Xederik gabeko Entitateen Zerga Araubidearen eta Mezenasgorako Zerga Pizgarrien Foru Araua) 29. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, 2020rako lehentasunezko jardueratzat jotzen dira gizarte eta osasun zerbitzu publikoetara bideratzeko Arabako Foru Aldundiari emandako zenbatekoak, Arabako Lurralde Historikoan COVID-19k sortu duen osasun krisiari aurre egiteko.

##### **Bigarrena. Dohaintzak kudeatzeko ardura duen saila**

Diputatu Nagusiaren Sailak izango du aurreko apartatuan adierazten diren dohaintzak kudeatzeko ardura, bai eta aurretik adierazi den helburuaz jasotako zenbateko guztien erabilera herritarrei egiaztatzekoa ere.

##### **Hirugarrena. Ziurtapena**

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak (Irabazteko Xederik gabeko Entitateen Zerga Araubidearen eta Mezenasgorako Zerga Pizgarrien Foru Araua) 29. artikuluan jasotako zerga onurak aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da zergapekoek, dagokion zergaren autolikidazioarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Sailaren ziurtagiria aurkeztea, zeinean egiaztatzen baitira interesdunak emandako eta erabaki honen xedapen zatiaren lehenengo apartatuan aipatzen den lehentasunezko jarduerara bideratutako zenbatekoak.

##### **Laugarrena. ALHAOn argitaratzea**

Lehentasunezko jardueraren adierazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 7a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**